

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Babestutako etxebizitzaren salmentako 2019rako gehieneko prezioak ezarri aurretik herritarrek parte hartzeko prozesua ireki da

*2019rako proposatutako babestutako etxebizitzaren modulu berria egungo modulutik %4,15 igo eta 2011koen antzeko balioetan kokatuko litzateke*

Osteguna, 2018.eko azaroak 8

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak dagokion Foru Agindua sinatu du, Nafarroan, 2019. urterako, babestutako etxebizitzaren eta horien eranskinen salmentako gehieneko prezioak ezarri aurretik herritarrek parte hartzeko prozesuari hasiera emateko.

Haztatutako modulurako proposaturiko eta kalkulaturako balio berria 1.198,35 eurokoa izan da, eta horrek esan nahi du egungo modulutik % 4,15eko igoera izango duela (egungoa 1.150,6 eurokoa da). [Hiru urtetan segidan jaitsierak izan ondoren gertatzen den lehen igoera](#) da: %4,06ko jaitsiera 2016an, %2,54koa 2017an eta %1,28koa 2018an.

Moduluak 2011an izandakoen antzeko balioak izango ditu, eta orain igo egingo den arren, 2015ekoarekin alderatuta, %3,87ko jaitsiera izango du.

3 gelako etxebizitzaren salmentako gehieneko prezio berria 6.787 euro igoko da babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eta 7.800 euro baino zertxobait gehiago prezio tasatuko etxebizitzari dagokienean, [2018an indarrean ziren gehieneko egungo prezioen aurrean](#).

2015ean indarrean zen prezioarekin alderatuta, 2019an hiru gelako babes ofizialeko etxebizitzaren erosi behar duenarentzat, etxebizitzaren gehieneko prezioa 6.848 euro jaitsi da eta 7.900 euro prezio tasatuko etxebizitzaren kasuan.

Babestutako etxebizitzaren moduluak jada ez zaie aplikatzen alokatzeko etxebizitzari, 2016ko abenduan onartutako Legean jasotako moduan, errentaren prezioa %8 eta %14 artean jaitsi ondoren, KPIren aldaketek eraentzen baitute.

Higiezinen merkatuak dinamismo handia izateak eta, bereziki, eraikuntza-kostuek gora egin izanak (eskulana eta materialak), babestutako etxebizitzaren prezioa igo egin dute aurten. Higiezinen krisiak eragindako enpresa-ehunaren suntsiketaren ondoren, nabaria izan da eskulan kualifikaturik ez egotea, eta sektoreak errezeloa izaten jarraitzen du langile berriak erakartzerakoan. Gainera, izaera artisauegia du, nahiz eta enpresa-elkarteak lanaren industrializazio eta digitalizazio handiagoa sustatzen ahalegindu.

### Parte hartzeko prozesua

Babestutako etxebizitzaren zenbateko berria eskuratzeko, dagokion formula aplikatzen da Nafarroan Etxebizitza izatearen Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 10. artikuluko 2. atalaren arabera, abenduaren 24ko 27/2014 Foru Legearen bidez emandako azken erredakzioaren ondoren.

Era berean, kontuan hartu dira salmentarako babes ofizialeko etxebizitzaren espedienteak, behin-behineko kalifikazio-eskaera dutenak 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitartean, NASUVINSAk sustatuta. Modu horretan, babestutako 50 etxebizitzako espedientea egin da. Horri buruzko xehetasuna kontsulta daiteke etxebizitza-arloko [informaziorako web gunean](#) eta [gobernu irekiaren atarian](#).

Bestalde, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubidearen Foru Legeko 10. artikuluko 2. atal horretan ezartzen da prezioa onartu aurretik herritarrek parte hartzeko prozesua garatu behar dela, eta, horrela, 2018ko abenduaren 1era bitarteko epea eman da ekarpenak eta iradokizunak bidaltzeko. Horretarako, ondorengo posta elektronikoa erabil daiteke: [participacion@navarra.es](mailto:participacion@navarra.es).